



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko irailaren 26a

103. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legea hein batean aldatzen duena, Nafarroako tributuen arloan jakinarazpen elektronikoa sustatzeko. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzko Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).

—Foru Lege proposamena, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu batagina hein batean aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketa (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Memoriaren Parkearen handitzea babes dezan eta gure foru erkidegoaren mugarri turistikoaren katalogoan sar dezan. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2015/2016 ikasturterako plan oso bat presta eta aurkez dezan, “motxila digitala” programa foru erkidegoko ikastetxeetan ezartzeko. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua atxiki egiten zaio Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarraren 2011ko maiatzaren 27ko 1815 Ebazpenari, eta Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen ditu ebazpen hori aplikatu dezaten. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da handitu dezan liburutegi publikoek funtsak erosteko eta berritzeko kontusaila eta bere gain har dezan kontusail berriazko bat, udal liburutegi publikoetako liburu-maileguaren kanona erosten laguntzeko behar adinakoa. Kulturako, Turismo eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (9. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Foru Administrazioko langileei 2012an kendutako aparteko ordainsariari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egin (10. or.).
- Galdera, Foru Erkidegoko osasun-garraio urgenteko zerbitzuaren gabeziei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (10. or.).
- Galdera, mendekotasunaren arloan lan egiten duten pertsonen mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko teknikari titulua lortu behar izateari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin (11. or.).
- Galdera, autobidea beren herrietatik pasatzeagatik Tuterako, Fontellasko eta Ribaforadako udalei OHZren % 5 ordaintzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (13. or.).
- Galdera, ondarearen gaineko zerga 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietan aitortu duen zergadun-kopuruari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egin (14. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2014ko eztabaida antolatzeko arauak (15. or.).
- Nafarroako 2014-2020 Osasun Plana. Osasun Batzordeak onetsia (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legea hein batean aldatzen duena, Nafarroako tributuen arloan jakinarazpen elektronikoa sustatzeko.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legea hein batean aldatzen duena, Nafarroako tributuen arloan jakinarazpen elektronikoa sustatzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2014ko ekainaren 20ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lau atalean, 99. artikulua 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa; lehenengo lerrokadan honela dio:

“4. Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik ezin bada jakinarazpenik egin, eta guxtienez bitan egin bada saiakera zerga helbidean...”

Honako testu hau proposatzen da:

“4. Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik ezin bada jakinarazpenik egin eta gu-

xtienez hamar eguneko epean bi aldiz bederen egin bada saiakera zerga helbidean...”

Zioak: Tributuduna oporretan edo kanpoan dagoen une jakin batzuetan elkarren segidako egunetan eginiko aldaketek tributudunarentzat fisikoki ezinezkoa egiten dute horien berri garaiz izatea eta epean erantzutea.

2. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zuzenketa, gehitzekoa Bost atalean, 99. artikulua 5. idatz-zatian, lehenengo eta bigarren lerrokadan artean, honako testu hau:

“Aurreko lerrokadan adierazten den prozeduran sartzen diren tributudunak ez dira behartuta egonen beste administrazio batean sartzera, salbu eta zergak zenbateko erlatiboen arabera ordaintzen dituztenak. Estatuko nahiz beste foru erkidego bateko edozein administraziook egoitza fiskala Nafarroan duten tributudunei egin beharreko komunikazioak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren bidez egingen dizkie”

Zioak: Tributudunak postontzietan etengabe begiratzen ibili behar ez izateko, batzuetan bost postontzi ere begiratu behar izaten baitituzte.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzko Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 22an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2014ko irailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzko Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2014ko ekainaren 26ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei

buruzko Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Sustapen Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **epe bat hasiko da, 2014ko urriaren 27ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testuategina hein batean aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testuategina hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketa. Proposamen hori 2014ko apirilaren 4ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko irailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA.**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztua

Artikulu bakarraren Bi atala kentzeko zuzenketa (91. artikuluari buruzkoa da).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Memoriaren Parkearen handitzea babes dezan eta gure foru erkidegoaren mugarri turistikoaren katalogoan sar dezan.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Memoriaren Parkearen handitzea babes dezan eta gure foru erkidegoaren mugarri turistikoaren katalogoan sar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Memoriaren Parkearen handitzea babes dezan eta gure foru erkidegoaren mugarri turistikoaren katalogoan sar dezan.

Sartagudako Memoriaren Parkea mugarri izan zen gure gizartearentzat. Proiektu hori, Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak eta Alargunen Herria Elkarteak sustatua, eta Espainiako Gobernuak, Nafarroako Gobernuak eta 90 udal baino gehiagok eta ehunka pertsonak eta taldek babestua, azken urteotako gertakaririk garrantzitsuenetako bat izan da. Daukan garrantzi emotibo, sozial, artistiko eta historikoarengatik,

administrazio publikoaren eta gizarte osoaren babesa merezi du.

Elkarte sustatzaileek iragarri dutenez, parke horretan beste eskultura bat paratuko da, 1936ko estatu kolpe haren zentzugabekeria pairatu zuten emakumeen, alargunen, alaben eta arriben omenez; izan ere, 1936ko estatu kolpeak Errepublikaren balioak defendatzeagatik eraildako nafarrez bete zituen bide-bazterrak eta zelaiak.

Memoriaren Parkeak badu osagai zentral bat: harresi bat, zeinetan ageri baitira 1936an eraildako 3.480 lagunaren izenak, baina baita zenbait eskultura –Nestor Basterretxearenak, Joxe Ulibarrenarenak eta José Ramón Andarenak– eta zenbait testu ere –Bernardo Atxagak, José María Jimeno Juríok, Castillo Suárezek, Jokin Muñozek eta Pablo Antónan idatziak–. Nafarroan lehen mailako proiektu kultural eta artistiko bat osatzen dute.

Ez da gutxi parkea bisitatzera hurbiltzen den jendea, eta ez da gutxi gizarte-ekimenekoa den obra zibil hau bere diru-ekarpenaren bidez babes-tu zuen jendea. Argi dago erakundeek babesik ezean ezinezkoa izanen zela parkea eraikitzea –izan ere, aurrekontuaren % 90 baino gehiago jarri zuten erakundeek–, baina gizartearen babesik gabe ez zuen zentzurik edukiko.

Hortaz, osagai turistiko aipagarria den aldetik eta balioen nahiz ikasgaiaren gune del aldetik, parkea gogoan hartu beharra dago gure gizartearen mugarri kultural eta sozialen artean.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea Memoriaren Parkean emakumeen omenezko eskultura bat jartzeko lagundu dezan, zeinaren aurrekontua, guttira, 36.000 eurokoa baita, 2015erako aurrekontuan 12.000 euroko kontusail izendun baten bidez.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea Sartagudako Memoriaren Parkea gure foru erkidegoaren mugarri turistikoaren katalogoan sar dezan eta parkera egindako bisitak bultzatu eta babes ditzan.

Iruñean, 2014ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2015/2016 ikasturterako plan oso bat presta eta aurkez dezan, “motxila digitala” programa foru erkidegoko ikastetxeetan ezartzeko.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2015/2016 ikasturterako plan oso bat presta eta aurkez dezan, “motxila digitala” programa foru erkidegoko ikastetxeetan ezartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, “motxila digitala” programa foru erkidegoko ikastetxeetan ezartzeko plan bat egitea eskatzen da.

Ikastetxeen etorkizuna ikasgelen digitalizazioaren eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak sartzean datza. Motxila digitala –non tableta batek testuliburuak ordezkutzen baititu– abian da beste autonomia erkidego batzuetako

ikastetxeetan, behin eredu berriaren funtzionamendua egiaztatu eta indartu ahal izan duten programa pilotuen arrakasta ikusita.

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, zeina Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren bidez aldatu baitzen, bere 1. artikuluan jasotzen du hezkuntza-berrikuntza dela hezkuntza-sistemaren printzipioetako bat, eta 120. artikuluan, berriz, Hezkuntza Administrazioak ezartzen dituen ekimenak abiarazten ahal dituztela ikastetxeek.

Hezkuntza Ministerioak testuliburuaren digitalizazioa bultzatu eta sustatu du, hezkuntza-eskaintza digital osoa hartzen duen plataforma elektronikoa baten bidez. Halatan, ikasleek zuzenean erosten ahal dituzte produktuak. Metodo berri honek, halaber, testuliburuak erostean dirua aurrezteko dakar. Aurrezpena % 75ekoa da gutxi gorabehera, seme-alaba bakoitzeko 250 euro gastatuzetik 50 euro gastatzera igarotzen baita.

Nafarroako Gobernua 2013-2014 ikasturtean hasi zen liburu elektronikoa Nafarroako ikastetxeetan arian-arian ezartzen, zenbait ikastetxetan garatutako programa pilotu baten bidez. Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe guztiek ikasgelen digitalizazioarekin bat egin dezaten, honako erabaki proposamen hau aurkeztzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2015-2016 ikasturterako plan oso bat presta eta aurkez dezan, “motxila digitala” programa foru erkidegoko ikastetxeetan ezartzeko.

Iruñean, 2014ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua atxiki egiten zaio Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarraren 2011ko maiatzaren 27ko 1815 Ebazpenari, eta Nafarroako eta Espainiako gobernuak premia-tzen ditu ebazpen hori aplikatu dezaten.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Batzordeak, 2014ko irailaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua atxiki egiten zaio Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarraren 2011ko maiatzaren 27ko 1815 Ebazpenari, eta Nafarroako eta Espainiako gobernuak premia-tzen ditu ebazpen hori aplikatu dezaten.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Parlamentu hau atxiki egiten zaio Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarraren 2011ko maiatzaren 27ko 1815 Ebazpenari.

2. Parlamentu honek Nafarroako Gobernua premia-tzen du ebazpen horretan emandako gomendioak aplikatu ditzan.

3. Parlamentu honek Espainiako Estatuko Gobernua premia-tzen du 1815 Ebazpenean emandako gomendioak jaso eta aplikatu ditzan, telekomunikazioei buruzko legedia garatzean"

Iruñean, 2014ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da handitu dezan liburutegi publikoek funtsak erosteko eta berritzeko kontusaila eta bere gain har dezan kontusail berariazko bat, udal liburutegi publikoetako liburu-maileguaren kanona erosten laguntzeko behar adinakoa.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2014ko irailaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da handitu dezan liburutegi publikoek funtsak erosteko eta berritzeko kontusaila eta bere gain har dezan kontusail berariazko bat, udal liburutegi publikoetako liburu-maileguaren kanona erosten laguntzeko behar adinakoa."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du 2015erako nahiz hurrengo urteetarako Estatuko Aurrekontu Orokorretan handitu dezan liburutegi publikoek funtsak erosteko eta berritzeko kontusaila eta bere gain har dezan kontusail berariazko bat, udal liburutegi publikoetako (edo, absortziorik izan bada, autonomia erkidegoetako) liburu-maileguaren kanona erosten laguntzeko behar adinakoa. Kontusailak

kanon osoa hartuko du 50.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du berariazko kontusail bat sor dezan 2015erako Estatuko Aurrekontu Orokorretan, parte hartze aldera kultura-, zientzia- edo hezkuntza-izaera aitortu zaien titulartasun publiko museoek, artxiboek, hemerrotekek, fonotekek edo filmotekek ordaindu beharreko eskubideen ordainketan.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du aurreko gobernu sozialistak ezarritako Irakurketa Sustatzeko Plana susper dezan Kulturako Konferentzia Sektorialaren baitan.

4. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa premiatzen du herri txikietako liburutegi publikoak bultzatu eta babes-teko plan bat presta dezan, Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioarekin lankidetzan."

Iruñean, 2014ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Foru Administrazioako langileei 2012an kendutako aparteko ordainsariari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Administrazioako langileei 2012an kendutako aparteko ordainsariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernua aztertzen ari al da Nafarroako Foru Administrazioako langile publikoei 2012an kendutako aparteko ordainsaria itzultzea? Baiezkoan, nola eta zer epetan egingen du itzulketa hori?

Iruñean, 2014ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, Foru Erkidegoko osasun-garraio urgenteko zerbitzuaren gabeziei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Foru Erkidegoko osasun-garraio urgenteko zerbitzuaren gabeziei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

- Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Foru Erkidegoko osasun-garraio urgenteko zerbitzuaren etengabeko akatsei buruz?

- Gobernuak akats horiek konpontzeko neurririk ba al darabil gogoan? Baiezkoan, neurri horiek zeintzuk dira?

Iruñean, 2014ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, mendekotasunaren arloan lan egiten duten pertsonen mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko teknikari titulua lortu behar izateari buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, mendekotasunaren arloan lan egiten duten pertsonen mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko teknikari titulua lortu behar izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

2014ko ekainaren 10eko 112. aldizkarian argitaratu zen maiatzaren 12ko 188/2014 Ebazpena, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiarena, maiatzaren 12koa, Lanbide Heziketako teknikariaren titulua lortzeko probetarako 2014ko deialdia egiten duena.

Ebazpenean honako hau esaten da:

“Gizarte Politikaren, Familien eta Mendekotasunerako eta Ezgaitasunerako Laguntzaren Estatuko Idazkaritzaren 2008ko abenduaren 2ko Ebazpenak argitaratu zuen Mendekotasuna dutenen Autonomiarako eta Arretarako Sistemaren Lurralde Kontseiluak Autonomiarako eta mendekotasunaren arretarako sistemako zentroen eta zerbitzuen kalitatea bermatzeko akreditazio irizpide amankomunei buruz hartutako erabakia Ebazpen horrek ezartzen du ezen, 2015erako, zaindariaren, gero-kultorearen, laguntzaile pertsonalaren eta etxeko laguntzailearen lanbide kategoriako langileen %100ek frogatu beharko dutela kasuan kasuko

mendekotasunaren arloko lanbide kualifikazioa. Horien artean, mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko teknikariaren titulua dago.

Hainbat eta hainbat langilek, Nafarroako enpresa, instituzio eta elkarteetan, mendekotasunaren arloan eta osasun larrialdietakoan, falta dute beren lanbide kualifikazioaren akreditazioa. Hori dela eta, mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko teknikariaren titulua eta osasun larrialdietako teknikariaren titulua eskuratzeko proben deialdia Hezkuntza Departamentuaren beste ekarpen bat da langile horien kualifikazioei dagokien akreditazio ofiziala emateko”

2. eranskinean jasotzen da prestakuntza zikloen, lanbide moduluen eta azterketako ikastetxeen zerrenda, mendekotasuna duten pertsonentzako arretarako prestakuntza zikloei dagokienez; lanbide moduluen kapitulua honela banatzen da: mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta antolatzea; komunikaziorako laguntza; etxeko laguntza; osasun arreta; arreta eta laguntza psikosoziala, eta arreta higienikoa.

Bestalde, abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretuak arautzen ditu Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak, zeinak Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarri baitziren. Bada, errege dekretuko 12. artikulua –familiaren esparruko zainketa-ko eta zaintzaile ez-profesionalen laguntzeko prestazio ekonomikoa jasotzeko betekizunak eta baldintzak– honako hau dio:

“2. Mendekotasun egoeran dagoen pertsona baten zaintzaile ez-profesional izaera hartu ahalko dute haren ezkontideak eta odol, ezkontza edo adopzio bidezko ahaidetasuneko hirugarren gradura arteko ahaideek, baldin eta mendekotasun egoeran dagoen pertsonaren bizileku bera badute, haiek zaintzen badute eta eskabidea aurkeztu aitzin urtebetez egin badute hori. Familia-harremanaren gisa bereko egoeratzat hartuko dira izatezko bikoteak, tutoreak eta administratiboki edo judizialki izendatutako pertsonak, harrera-eginkizunak dituztenak”

“4. Arestiko idatz-zatietan ezarritakoaz gain, honako baldintza hauek bete behar dira mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako familia-esparruko zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa jasotzeko:

d) Proposatzen zaizkion prestakuntza-ekintzak egitea zaintzaileak, baldin eta mendekotasun egoeran dagoen pertsona zaintzearekin bateragarriak badira”

Autonomiarako eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak honako hau ezarritzen du 18. eta 36. artikuluetan:

“18. artikulua. Familiaren esparruko zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa.

4. Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Lurralde Kontseiluak zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko ekintzak sustatuko ditu, zeinen artean egonen baitira prestakuntza programak, informazioa eta atsedenaldiak artatzeko neurriak.

36. artikulua. Zainketa-profesionalen prestakuntza eta kualifikazioa.

1. Aintzat hartuko da mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntzen dieten profesionalen eta zaintzaileen prestakuntza oinarrikoa eta eten-

gabea. Horretarako, botere publikoek ezarriko dute zeintzuk diren lanbide kualifikazio egokienak 15. artikuluan araututako zerbitzu-katalogoarekin bat datozen funtzioak betetzeko.

2. Legean ezarritako zerbitzuak ezartzeko beharrezkoak diren prestakuntza-programak eta -ekintzak sustatuko dituzte botere publikoek.

Galdera idatziak:

1. Maiatzaren 12ko 188/2014 Ebazpenarekin bat, mendekotasunaren arloko Nafarroako elkarteak osatzen dituzten pertsonen, beren lanbide-kualifikazioaren gaineko frogagiririk ez badute, nahitaez lortu behar al dute mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko teknikari titulua?

2. Maiatzaren 12ko 188/2014 Ebazpenarekin eta zioen azalpenean aipatutako araudiarekin eta legediarekin bat, zaintzaile ez-profesionalek mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko teknikari titulua lortu behar al dute?

3. Baiezkoan, Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako Departamentuak nola arinduko ditu zerbitzuan gerta litezkeen gabeziak, baldin eta zaintzaileek ezin badute lortu mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko teknikari titulua?

Iruñean, 2014ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, autobidea beren herrietatik pasatzeagatik Tuterako, Fontellasko eta Ribaforadako udalei OHZren % 5 ordaintzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, autobidea beren herrietatik pasatzeagatik Tuterako, Fontellasko eta Ribaforadako udalei OHZren % 5 ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Epai judizial baten arabera, Nafarroako Gobernuak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren % 5 ordaindu beharko die Tuterako, Fontellasko eta Ribaforadako udalei, autobidea beren herrietatik pasatzeagatik. Hori horrela, hauxe jakin nahi dut:

- Nafarroako Gobernuak zenbat ordaindu beharko die Tuterako, Fontellasko eta Ribaforadako udalei epaiaren ondorioz?

- Zor hori autobidea igarotzen den herri guztiei ordaindu behar izanez gero, zenbatekoa izanen litzateke guztira ordaindu beharrekoa?

Iruñean, 2014ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, ondarearen gaineko zerga 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietan aitortu duen zergadun-kopuruari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, ondarearen gaineko zerga 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietan aitortu duen zergadun-kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ondarearen gaineko zerga 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietan aitortu duten zergadunen kopurua.

Iruñean, 2014ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2014ko eztabaida antolatze arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Ondoko arauak onestea, Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida antolatze arauak.

“Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2014ko eztabaida antolatze arauak Urriaren 16an eta 17an

Urriaren 16a

Eztabaida eginen da Erregelamenduko 201. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren mintzaldiarekin hasiko da.

Azalpen hori amaiturik, bilkura ordu erdiz etenen da. Bilkura berriz hasten denean, mintzatuko dira mintzaldi-eskaera egiten duten parlamentutalde guztien eledunak, 30 minutuz gehienez ere.

Mintzaldien hurrenkera parlamentari gehien dituen taldetik gutxien dituenakoa izanen da. Unión del Pueblo Navarro parlamentutaldea salbuespena izanen da, azkena izanen baita mintzatzeko.

Mintzaldiak amaituta, Gobernuko Lehendakariak erantzun eginen die. Ondoren, ihardespentxanda bat irekiko da eskatzen duen parlamentutalde bakoitzeko eledunarentzat, hamar minutuko gehienez.

Azkenik, eztabaida Lehendakariaren mintzaldiarekin bukatuko da.

Eztabaida bukatzen denean, hamabost minutuko epea irekiko da, parlamentutaldeen eta atxiki gabeko parlamentariak Mahaiari erabaki proposamenak aurkeztu ahal izateko. Parlamentutalde bakoitzak gehienez ere bost erabaki proposamen aurkeztu ahalko ditu, eta atxiki gabeko parlamentariak gehienez bi. Sinatzaileek proposamen horiek bidali beharko dituzte ere egoki den unean adieraziko zaien posta elektronikoko kontu batera.

Urriaren 17a

Mahaiak onarturiko proposamenak 09:30etik aitzina eztabaidatuko dira Osoko Bilkuran.

Erabaki proposamenak eztabaidatuko dira mintzaldien hurrenkera berean; hots, parlamentari gehien dituen taldearekin hasiz eta gutxien dituenarekin bukatuz, salbu eta Unión del Pueblo Navarro parlamentutaldeari dagokionez, harenak azkenak eztabaidatuko baitira.

Parlamentutalde bakoitzak bere proposamenak batera defendatuko ditu, hamar minutuz gehienez. Ondoren, taldeen interbentzioen txanda bat irekiko da, aldekoa zein kontrakoa, eztabaidaren hurrenkera berean, eta ihardespentxanda bat ere. Bi txanda horiek bost minutukoak izanen dira. Atxiki gabeko parlamentarien interbentzioek irauten dute, orotara, parlamentutaldee esleitutako denboraren erdia. Parlamentutalde bakoitzaren proposamenak eztabaidatu ondoren, banan-banan bozkatuko dira erabaki proposamenak.”

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako 2014-2020 Osasun Plana.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2014ko irailaren 16an egindako bileran, onetsi zuen Nafarroako 2014-2020 Osasun Plana –plan hori 2014ko ekainaren 17ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, eta plan horri Nafarroako Parlamentuaren web orrian, helbide honetan, kontsulta daitezkeen proposame-

nak gehitu zitzaizkion: <http://www.parlamentodenavarra.es/inicio/publicaciones/documentos.aspx>

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut erabaki hau argitarara dadin.

Iruñean, 2014ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera